



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 29a

26. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Leitzako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([2. or.](#)).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Leitzako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 20an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Leitzako Udalari buruz egin-dako fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2006ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Leitzako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2004ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. 2004ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (4. or.).
  - IV.2. 2004ko abenduaren 31ko ondare egoeraren eta emaitza ekonomikoaren agerpena (4. or.).
  - IV.3. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.4. 2004ko abenduaren 31ko finantza egoera (4. or.).
- V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (4. or.).
  - V.1. 2004ko ekitaldiko udalaren aurrekontuaren likidazioa (4. or.).
  - V.2. Udalaren egoera balantzea (11. or.).
  - V.3. Udalaren irabazi eta galeren kontua (13. or.).
  - V.4. Hirigintza (13. or.).
  - V.5. Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioaren azterketa (14. or.).

#### **VI. Udal enpresa publikoa (15. or.).**

- 1. Eranskina: Leitzako Udalaren finantzen egoerariak, 2004ko abenduaren 31n (17. or.).
  - 1.1. Eranskina. Udalaren gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera, 2004ko abenduaren 31n (17. or.).
  - 1.2. Eranskina. Udalaren egoera balantzea 2004ko abenduaren 31n (18. or.).
  - 1.3. Eranskina. Udalaren galera eta irabazien kontua, 2004ko abenduaren 31n (19. or.).
- 2. Eranskina: Udal enpresaren egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n (20. or.).
  - 2.1. Eranskina. Egoera balantzea 2004ko abenduaren 31n (20. or.).
  - 2.2. Eranskina. Irabazi eta galeren kontua 2004ko abenduaren 31n (20. or.).

#### **I. SARRERA**

Nafarroako Comptos Ganberak abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz Leitzako Udalaren jardura ekonomikoa eta finantzarioaren 2004ko ekitaldiko fiskalizazioa egina du.

Lana Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak eskatu zuen, Aralar parlamentu-taldek proposaturik. Hortaz, Comptos Ganberak 2005etarako onarturiko lan-egitarauan sartzea erabaki zuen.

Leitza Nafarroako mendialdeko herri bat da. 2004ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, 2.901 biztanle ditu eta herriaren luze-zabala 58,33 kilometro karratu da.

Leitzako Udalak honako mankomunitateotan parte hartzen du:

a) Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Kudekaetarako Mankomunitatea.

b) Nafarroako Mendialdeko Euskararen Kudeaketarako Mankomunitatea.

Udala Hirigintza Kudeatzeko Leitza Lantzen Elkartea SL enpresa publikoaren akziodun bakarra da. Enpresa hori 2001ean sortu zen Udalak jarritako 3.006 euroko dirutzarekin. Enpresaren helburua hirigintza planak eta horrekin zer ikusia duten ekimenak bultzatzea da.

Leitzako Udalaren kontabilitatea Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari Nafarroako Toki Administrazioak eginiko moldaketaren arabera egiten da.

Udalak honakoak ditu munta handieneko datuak 2004ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitorturiko eskubideak	Aitorturiko betebeharrak	Langileak
Udala	2.796.206,18	2.477.478,64	14

## II. HELBURUA

Nafarroako Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/84 Foru Legeari eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeari jarraituz, Leitzako Udalaren eta haren enpresa publikoaren (Hirigintza Kudeatzeko Leitza Lantzen Elkartea SL) 2004ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu.

Toki entitateari aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua, hirigintza-kudeaketaren eta administrazio-kontratazioaren gaineko araudia eta Nafarroako toki administrazioari aplikatzekoa zaion gainerako araudia.

Kontabilitatearen eta aurrekontuaren arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irilaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira. Aipaturiko dekretuak Nafarroako toki administrazio-ko aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak dira.

Txostenaren helburua honako gaii buruzko iritzia adieraztea da:

a) Udalaren 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2004ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko eta finantzarioa legez-kotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren udal enpresa publikoaren finantza-egoera.

## III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, erakundea arautzen duen foru legearekin eta 2005eko lan-egitarauarekin bat, Leitzako Udalaren 2004ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du. Aipaturiko fiskalizazioak honakoa biltzen du: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, egoera balantzea, irabazi eta galeren kontua, eranskinak, eta baita udal enpresa publikoaren balantzea eta irabazi eta galeren kontua ere.

Kontuen Batzorde Bereziak udalaren kontu orokorra 2005eko maiatzaren 27an aurkeztu zuen eta osoko bilkurak 2005eko uztailaren 5ean onartu zuen.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio printzipioei eta arauari jarraituz eta, baldintzen arabera, beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz egin dugu lana.

Fiskalizazioan barne kontrola, aurrekontuaren gastu eta dirusarreraren diru-sail batzuk, egoera balantzea eta irabazi eta galeren kontua aztertu ditugu. Hori dena, zirkunstantzien arabera beharrezkotzat jo ditugun froga eta auditoriako beste teknika batzuen bitartez burutu dugu.

Halaber, Udalaren eta haren udal enpresa publikoaren egoera ekonomikoa eta finantzarioa aztertu ditugu.

Txostenaren iritzi eta ondorioak eginiko frogen emaitzetan daude oinarriturik. Atzemandako akatsen garrantzia ere kontua, hartu izan dugu.

Udalaren barne kontrola eta kudeaketa ekonomikoa hobetzeko beharrezkotzat jotzen ditugun iruzkinak eta gomendioak ere txostenean biltzen dira.

Zelaiko lana 2005eko ekainean egin zen.

Udaleko langileria eskerrak eman nahi dizkiogu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

**IV. IRITZIA**

Eginiko azterketaren emaitza gisa, aurreko atalean aipaturiko norainokoa ere kontuan hartuz, hona hemen gure iritzia:

**IV.1. 2004ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ**

Gure iritziz, 2004ko aurrekontuaren likidazioak ongi islatzen du, alderirik adierazgarrietan, zer egin den eta zein den aurrekontuaren egoera 2004ko abenduaren 31n.

**IV.2. 2004ko ABENDUAREN 31ko ONDARE EGOERAREN ETA EMAITZA EKONOMIKOAREN AGERPENA**

Gure iritziz, 2004ko egoera balantzeak eta irabazi eta galeren kontuak ondarea eta finantza egoera ongi islatzen dituzte. Halaber, Leitzako Udalaren eta haren udal enpresaren 2004ko abenduaren 31ko emaitza ekonomikoaren isla dira.

**IV.3. LEGEZKOTASUNA**

Ondoren aipatuko dugun salbuespena alde batera utzita, Leitzako Udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

Dena den, aipatzekoa da udal haurtzaindegiko bi langileren lan egoera ez dela konpondu. Aipaturiko langileak 1989an kontratatu zituzten, langile finkoak dira udal langileen zerrendaren arabera, baina Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenak izendapena ezeztatu egin zuen legediaren aurkakoa izateagatik, 1994ko maiatzaren 31n ezagutarazi zuen sententzian.

**IV.4. 2004ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA EGOERA**

Leitzako Udalak 442.560,39 euroko diruzaintzako gerakina zuen 2004ko abenduaren 31n, inbertsioen finantziatorako harturiko 390.000 euroko maileguari esker.

2004ko ekitaldian sorturiko aurrezki garbia 168.560,87 eurokoa da, ohiko dirusarreraren %8, hain zuzen.

Udalaren zorpetze maila %13 zen 2004ko abenduaren 31n, zor-muga baino zortzi puntu txikiagoa.

Udal enpresa publikoak epe motzerako maileguak behar izaten ditu epe motzeko beharrei aurre egiteko.

Enpresak dirua galdu egin du, batez ere finantza gastuek sorturiko ondare garbi negatiboa dela eta.

**V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Atal honek 2004ko ekitaldiko fiskalizazio lanaren ondorio nagusiak biltzen ditu. Halaber, fiskalizazioak atzemandako akatsak zuzentzeko balio dezaketen gomendioak ere zehazten ditu.

**V.1. 2004ko EKITALDIKO UDALAREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Leitzako Udalak 2004ko hasierako aurrekontua eta betetze-arauak 2004ko otsailaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen. Dirusarreraren eta gastuen hasierako prebisioak 3.294.456,89 eurokoak ziren.

*Behin jendeaurrean aurkezteko epea bukatu-rik, behin betiko aurrekontua aurreko urteko abenduaren 31a baino lehen onartu behar da.*

**V.1.1. 2004ko ekitaldiko aurrekontuaren bete-tezari buruzko iruzkin orokorrak**

2004ko ekitaldian onarturiko eskubideak 2.796.206,18 eurokoak dira, dirusarreraren hasierako aurreikuspenaren %83. Azpimarratzekoa da finantza-pasiboen betetzea, %217 izan baita. Horren arrazoia da Patxi Arrazola auzoan 2004an egin beharreko lanetarako eskaturiko mailegua, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso bitartean obra lanak pagatzeko beharrezkoa izan baitzen.

Ondare bidezko dirusarrerak eta baso-ahobekamenduak %26 besterik ez dira bete, aurreikusitako baso-ahobekamenduak ez baitira eman.

Inbertsioen besterenganatzearen ondoriozko eskubiderik ez da onartu, Irusoenearen salmenta 2005eko ekitaldian egin baitzen.

Kapital transferentziak %34 bete dira, finantzaturiko inbertsioen betetze maila txikia izan delako.

2004ko ekitaldian onaturiko eskubideetan zergetakoak eta transferentzia arruntetakoak dira nagusiak, %35 eta % 29 hurrenez hurren. 2004ko ekitaldiko kobrantzak sorturiko eskubideen %89 izan dira.

2004ko ekitaldian onaturiko betebeharrak 2.477.478,64 eurokoak dira, gastuen behin betiko kredituen %73. Betetze-maila apala inbertsioek eragin dute, aurreikusitako inbertsioen %39 besterik ez baitira burutu.

Gastuei dagokienez, ondasun arruntak eta zerbitzuak, langileriarenak eta inbertsioak dira garran-

tzitsuenak. Onarturiko betebeharren %37, %22 eta %22 dira, hurrenez hurren.

Sorturiko gastuen %80 ordaindu dira 2004ko ekitaldian.

2004ko ekitaldiko aurrekontu emaitza 318.727,54 eurokoa izan da. Honakoak dira xehetasunak eta azken bi urteko emaitzen arteko aldea.

	2004	2003
Aurrekontu emaitza	318.727,54	-149.530,53
Finantziazioaren desbideraketa	97.228,85	-6.119,21
Aurrekontu emaitza doituia	415.956,39	-155.649,74

2004ko finantziazioaren desbideraketa sareen aldaketa, zoladura eta espaloien konponketa lanek sortu dute, diru-laguntza jaso aurretik Udalak dirua jarri behar izan zuelako.

Aurrekontu emaitza doituia 415.956,39 eurokoa da, baina 8.201,16 eurotan gehitu behar da, Mandazelaiko zabortegiko gastuengatik. Gastu horiek 2004ko ekitaldian onartu ziren eta aurreko urteko diruzaintzako gerakinari egotzi zitzaizkion.

#### V.1.2. Aurrekontu aldaketak

2004ko ekitaldian 94.016,98 euroko aurrekontu aldaketak egin ziren, hasierako gastuen %3.

Aldaketa bakoitza zegokion organoak onartu du, tramitazioa indarrean dagoen legediak finkaturiko prozeduraren arabera egin da, eta aldaketa guztiek finantziazio modua bazuten.

Dena den:

- Gastuetarako kredituak gainditu egin dira 2004ko ekitaldian.

- Aldaketa gehienak 2004ko abenduaren 30ean onartu eta 2005eko ekitaldian argitaratu ziren.

Beraz, hona hemen gure gomendioak:

- *Lotura-boltsa bakoitzean onarturiko gastuen kredituak mugatuak dira eta hori errespetatu egin behar da.*

- *Aurrekontu aldaketak gastua onartu aurretik egin behar dira, eta tramitazioa indarrean sartzen diren ekitaldian bukatu behar da, argitara emanez.*

#### V.1.3. Langileria gastuak

Langileria gastuek 558.417,87 euro egin zuten 2004ko ekitaldian, aurreko urtean baino %7 gehiago. Behin betiko kredituen betetze maila %100 izan zen. 2004ko gastu guztien %22 dira eta %98 ordaindu zen 2004ko ekitaldian.

Honakoak dira langileria gastuak 2004ko ekitaldian:

Art.	Izena	Onarturiko betebeharrak	Langileriaren gastuen %
10	Goi karguak	22.269,73	% 4
12	Funtzionarioak	109.786,46	% 20
13	Lan kontratudunak	198.452,54	% 35
16	Kuotak, prestazioak, gizarte gastuak	227.909,14	% 41
	Langileria gastuak, guztira	558.417,87	% 100

2004ko plantilla organikoa eta langileen zerrenda osoko bilkurak onartu zuen 2004ko otsailean eta NAO n argitaratu ziren 2004ko irailaren 24an. Plantillan 15 lanpostu daude. Horietako 14 beteta zeuden 2004ko abenduaren 31n.

Langileriaz eginiko azterketaz honakoa azpimarratu nahi dugu:

- Txostenak "Iritzia" atalean aipatzen duen Justizia Epaitegi Gorenaren sententzia ez da bete. Sententziak ezeztatu egin zuen osoko bilkurak haurtzaindegiko bi langile finko bihurtzeko hartu zuen erabakia, legediaren aurkakoa izateagatik.

Alde horretatik, aipatzekoa da Leitzako Udalak gai honi buruzko txosten juridikoa bidali digula. Bertan egoera konpontzeko eskatzen zaio Udalari. Comptos Ganberaren aburuz ere horixe da Udalak egin behar duena.

- Langile bati behin behineko kontratua egin zitzaion udal haurtzaindegian 2004-2005 ikasturtean aritzeko. Kontratuaren iraupena luzeagoa zen legeak onartutakoa baino. Langile bera aurreko ikasturtean ere aritua zen lanean kontratuaren bidez. Udal haurtzaindegiko hezitzaile lanpostua ez dago hutsik udal plantilla organikoan.

Honakoak dira gure gomendioak:

- *Nafarroako Epaitegi Gorenaren sententzia bete eta Udal haurtzaindegiko hezitzaileen bi lanpostuak deialdi publikoaren bidez ateratzea, oposizioa edo lehiaketa-oposizioa sistema erabiliz.*

- *Udal langileriaren egoera eta beharrak aztertzea, batez ere udal haurtzaindegian, lanpostuak kontratazio modu egokienak erabiliz betetzeko. Langileak plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuetarako besterik ezin dira hartu.*

- *Langileen aseguruak gastuen 16. artitulan kontabilizatzea.*

#### **V.1.4. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak**

Aurrekontuaren 2. kapituluak biltzen dituen ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak 908.582,44 eurokoak izan ziren 2004an, aurreko urtean baino %13 gehiago. 2004ko ekitaldiko gastu guztien %37 dira. Behin betiko kredituen %100 gastatu da. 2004ko ordainketak onarturiko betebeharren %85 dira.

"Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak" kontzeptupean onarturiko betebeharrak honakoei dagozkie:

	Onarturiko betebeharrak	2. kapituluko gastu guztien %
Konponketak, mantenimendu, kontserbazioa	240.629,22	27
Inbentarioan sartzen ez den materiala	26.783,69	3
Horniketak	65.672,67	7
Garraioa eta komunikazioak	17.740,9	2
Aseguru-saria	22.571,10	2
Mota askotako gastuak	138.728,40	15
Enpresek eginiko lanak	395.285,16	44
Lokomozio-sariak	1.171,30	
<b>Guztira</b>	<b>908.582,44</b>	<b>100</b>

Gastuen arlo honetan eginiko fiskalizazio lana hauxe izan da:

- Gastuen %87 biltzen duten faktura batzuk aztertu.

- Honako gastuen azterketa:

	2004ko gastuak	2. kapituluko gastuen %
Zabor bilketa zerbitzua	184.223,07	20
Garbiketa	126.508,32	14
Polikiroldegiko dudeaketa	54.470,53	6
Hirigintza-aholkularitza	30.779,76	3
Igerilekuen kudeaketa	20.177,00	2
Derrigorrezko dirubilketa-agentzia	1.721,50	0,19

Eginiko azterketaren arabera honakoa ondorioztatzen dugu: Fakturek gastuak egiaztatzen dituzte eta dagozkien diru-sailetan daude kontabilizaturik. Halaber, gastuak sortu ziren epeari daude egotzita.

Azterturiko gastuei loturiko datu aipagarriak honakoak dira:

- **Garbiketa** kontratuaren arabera, zerbitzua udal etxeetan eta kaletan egiten da. Kontratua bi urterako sinatu zen 1995eko otsailean (beste bi urtez luzatzeko aukera aurreikusi zen). Kontratua zenbait aldiz berritu eta gero, 2003ko urriaren 31n prezioa aldatu zen, zerbitzua handitu baitzen garbitu beharreko toki berriengatik (zine aretoa). Kontratua aldatuagatik, ez da kontratazio espedienterik egin, nahiz eta prezioa %10 baino gehiago handitu eta zerbitzuak aldatu.

Udal eraikinen garbiketan 96.589,68 euro eta kaleen garbiketan 29.918,76 euro gastatu dira 2004ko ekitaldian. Kontratuak beste administrazio kontratuei dagozkien zerbitzuak biltzen ditu. Eraikinen garbiketa dirutan garrantzitsuena izanik, laguntza teknikoaren kontratuak bezala arautu beharko litzateke. Beraz, haren iraupena (luzapena barne) gehienez 6 urtekoa izan daiteke.

- **Hirigintza arloko aholkularitza** arkitekto batek eta arkitekto tekniko batek egiten dute. Horretarako, urtebeteko laguntza teknikoaren kontratuak egin ziren. Kontratuak luzatu daitezke udala eta teknikoak ados jarritz gero, administrazio klausulen pleguak zehaztutakoaren arabera.

Arkitektoak kontratuak zehazturiko dirutza baino gehiago jaso zuen 2004ko ekitaldian, eta Udalak ez zuen igoera onartzeko akordioarik hartu.

Bi kontratuak berritu egin dira 2004ko ekitaldian.

*Hona hemen gure gomendioak:*

- *Udal arkitektoaren fakturazioa kontratuak finantziaturiko prezioarekin bat egin behar du.*

- *Laguntza-teknikoen kontratuek sei urteko iraupena izan behar dute (luzapenak barne), kontratu-legeak agindutakoa betetzeko.*

- *Kontratuaren aldaketa adjudikazio prezioaren %10 baino gehiago denean, edo zerbitzu berriak sartzen direnean, espedientea tramitatu egin behar da.*

#### V.1.5. Transferentzia arrunten gastuak

Transferentzia arrunten gastuak 195.552,30 euro egin zuten 2004ko ekitaldian. Aurreko urteko datuekin alderatuz %5 gutxitu ziren. Gastu guztien %8 dira eta behin betiko kredituen %96 bete dira. Onarturiko betebeharren %96 ordaindu dira.

Transferentzia-gastuetan bi motako gastuak daude: Leitzako Udalak hainbat elkartetan parte hartzeagatik ordaindu behar dituen kuotak eta kultur zein kirol ekitaldietarako ematen dituen dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari, Euskara Mankomunitateari eta Lekunberriko Udalak kudeatzen duen Musika Eskolari emaniko dirua da 2004ko gastu nagusia. Transferentzia-gastuen %37, %23 eta %16 dira, hurrenez hurren, 2004ko ekitaldian.

Fiskalizazio lana egiteko aipaturiko diru-sailak aztertu ditugu, eta baita lagin aleatorioa erabiliz aukeratutako faktura batzuk ere.

Musika Eskolari, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari eta Euskara Mankomunitateari ordaindurikoa jasotzaileek justifikaturik daukate, hitzarmen eta estatutuetan finkaturiko irizpideen arabera daude kalkulatu, ongi kontabilizatu dira eta oraindu egin dira.

#### V.I.6. Inbertsioak

Leitzako Udalaren inbertsioak 542.131,14 eurokoak izan ziren 2004ko ekitaldian, Udalaren gastu guztien %22. Aurreikusitakoarekin alderatuz, %39 bete dira, Patxi Arrazola auzoko zoladura eta hornikuntza lanen betetzea murrizta izan delako.

Aipaturiko obra ziren Udalak 2004rako aurreikusitako nagusiak.

Arlo honetan egin beharreko fiskalizazio lana burutzeko lagin aleatorioz aukeratutako faktura batzuk aztertu ditugu, eta baita hurrengo inbertsioak ere:

#### Suhiltzaileak

“Suhiltzaileetan hobekuntzak” deituriko inbertsioan 30.078,8 euro gastatu ziren 2004ko ekital-

dian. Nafarroako Gobernuak osotasunean finantzaturiko inbertsioaren helburua suhiltzaileen etxeko ateak erostea zen. Diru-sail honetan 22.025,87 euroko aurrekontu aldaketa egin da. Tramitazioa ongi egin da, onartu beharreko organoak onartu du eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarekin finantzatu da. Gastua onartuta dago, justifikatuta, ongi kontabilizatuta eta ordaintu gabe zegoen 2004ko ekitaldiaren amaieran.

#### Patxi Arrazola auzoko sareen aldaketa eta pabimentazio lanak

	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioa	Behin betiko kreditua	Onarturiko betebeharra	Ordainketak
Sareen aldaketa	579.371,62		578.301,28	205.360,68	4.849,14
Pabimentazioa	399.703,82	962.428,07	399.703,82	4.125,00	4.125,00
Guztira	979.075,44	962.428,07	978.005,1	209.485,68	8.974,14

Obra hauek prozedura irekia eta lehiaketa erabiliz eman ziren 2004ko ekitaldian. Obra egiteko 5 hilabeteko epea bazegoen ere, ez da bete. 2004an aurkezturiko ziurtagirien bidez, sareen aldaketarako aurreikusitako lanen %35 besterik ez da egin. Obra lanak 2005eko urtarrilaren 26an bukatu behar ziren. Txostena egin zen garaian pabimentazio lanak egin gabe zeuden.

*Hona hemen gure gomendioa:*

- *Kontratuek finkaturiko epea betetzea, eta ez badira betetzen legediak finkaturiko zigorak jar-*

*tzea. Gogoratzekoa da adjudikazioa egiterakoan epea kontuan hartu izan dela.*

#### V.1.7. Zergak

Leitzako Udalak zergen bidez bildu beharreko dirutza 976.303,07 eurokoa zen 2004ko ekitaldian, Udalaren gastu guztien % 35. Kobraturiko %91 izan da. Aurreko urteko datuekin konparatuz, zergen bidez bildurikoa %50 handitu da, batez ere eraikuntza zergari esker.

Honakoak dira 2004ko ekitaldian bilduriko zenbatekoak zerga moten arabera:



Kontzeptua	Aurreikuspena	Onarturiko eskubideak	Kobrantzak
Kontribuzioak	253.650	279.567,6	273.840,84
Zirkulazio zerga	150.000	166.672,16	157.842,40
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	2.500	12.695,72	9.860,63
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	72.000	82.073,6	77.571,95
ICIO (Etxegintza eta obren gaineko zerga)	300.000	435.293,99	370.934,15
Guztira	778.150	976.303,07	890.049,97

Ondoren, 2004ko ekitaldian indarrean egon diren zerga-portzentajeak eta Toki Ogasun Legeak finkaturikoen arteko aldea ikus daitezke. Zerga-

zama horiek udal osoko bilkurak onartu eta 2003ko ekitaldian argitaratu ziren:

Zerga	Udala	Toki Ogasunen Legea
Hirilurraren gaineko kontribuzioa	% 0,23	0,10 – 0,50
Landalurraren gaineko kontribuzioa	% 0,66	0,10 – 0,80
Etxegintza eta obren gaineko zerga	% 2tik 60.101,21 euroraino % 3, 60.101,21eurotik 120.202,42 euroraino % 3,5, 120.202,42 eurotik 240.404,84 euroraino % 5, 240.404,84 gehiago	2 – 5
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	% 2,75 bost urte arte % 2,65 5 urtetik 10 bitarteko epean % 2,55 10 urtetik 20 urte bitarteko epean % 14 zama mota	2,2 – 3,3 2,1 – 3,2 2 – 3,1 % 8 – % 20
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4 Indizea	1 – 1,4

2004ko ekitaldiko zerga-portzentajeak aurreko urteko berberak dira, hirilurraren gaineko kontribuzioa izan ezik, 0,45tik 0,23ra jeitsi baita, balorazio sistema berria aplikatu baita.

Zergen kudeaketaren gaineko azterketaren emaitza hauxe da: orokorrean ongi kudeatzen dira, bai likidazio garaian eta baita kobrantzan ere, borondatezkoan zein derrigorrezkoan. Zergak behar bezala onartu eta kontabilizatu egiten dira.

#### V.1.8. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak

Tasa, prezio eta bestelako diru-sarrerengatik lorturiko dirutza 248.324,28 eurokoa izan zen, onarturiko eskubide guztien %9a.

Udalak kobraturiko **tasa eta prezio publiko** nagusiak honakoak izan ziren 2004ko ekitaldian:

	Behin betiko aurreikuspena	Onarturiko eskubideak	Kobrantzak
Zabor bilketa eta tratamendua	65.000	71.452,91	70.023,01
Ur hornikuntza	48.200	67.096,46	57.985,80
Hautzaindegia	27.886,28	24.863,72	24.863,72
Argindarraren tasa	12.000	10.196,17	10.196,17
Merkatuak	10.500	9.455	9.455

Udalak kobraturiko tasa eta prezio guztiak araudietan oinarriturik daudela frogatu dugu.

Tasa eta prezio publikoen gaineko azterketa egin eta gero, honakoa ondorioztatzen dugu: ongi kudeatzen direla, bai likidazio nola kokrantza aldi-an, borontatezko epean zein derrigorrezkoan.

### V.1.9. Kapital transferentziak eta transparentzia arruntak

Transferentzietako dirusarrerak honakoak izan ziren 2004ko ekitaldian.

	Onarturiko eskubideak	Kobrantsak
Estatuarenak	7.519,74	7.519,74
Nafarroako Gobernuarenak	720.448,81	655.265,13
Udalenak	86.377,10	59.729,26
Partikularrenak	6.513,26	0
Transferentzia arruntak	820.858,91	722.514,13
<hr/>		
Nafarroako Gobernuarenak	165.485,50	81.103,57
Bestelako kapital dirusarrerak	136.812,31	131.456,36
Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	302.297,81	212.559,93

Transferentzia arruntak Udalaren dirusarrera guztien %29 dira. Transferentzia arruntan %67 Toki Ogasunen Fondoari dagokio, eta besteak Nafarroako Gobernuak udal zerbitzu eta ekitaldiarako ematen dituen laguntzei, eta Udalek zabor bilketa-rako jartzen duten diruari dagozkie.

Kapital transferentziak Udalak 2004an onarturiko dirusarreraren %11 dira. Nafarroako Gobernuak inbertsioen finantziatorako emaniko diru-laguntzei, hirigintza kuotei eta beste kapital dirusarrerei egokitzako hirigintza aprobetxamenduei dagozkie.

*Transferentzietako dirusarrerei dagokienez, hona hemen gure gomendioa:*

*Eskubidea kobratzen denean onartu behar da, dirua ematen duenak betebeharra onartu duela jakin ezean.*

### V.1.10. Ondasun dirusarrerak eta komunalak

Ondasun eta komunak dirusarrerak 58.422,11 euro egin zuten 2004ko ekitaldian, udalaren dirusarrera guztien %2. Betetze maila %26koa izan da. Aurreikusitakoaren eta betetze mailaren arteko aldearen arrazoia da urtean adjudikatu beharreko baso-probetxamenduak ez direla esleitu.

Dirusarrerotan honakoak ditugu:

	Behin betiko prebisioa	Onartutako eskubideak	Kobrantsak
Kontu korrenteen interesak	60,00	43,60	43,60
Eraikinen alokairua	4.000,00	11.554,63	8.389,99
Energia hidroelektrikoa	18.030,36	18.030,30	18.030,30
Ondasun komunalen ustiapena	205.100,00	28.793,58	27.673,1
Guztira	227.190,36	58.422,11	54.136,99

Arlo honetako dirusarreraren gaineko azterketaren ondorioak honakoak dira:

**Energia hidroelektrikoa:** Dirusarrerak parke eolikoa egiteko lurren lagapenari dagozkio. Udalak eta enpresa eolikoak hitzarmen bat sinatu zuten 1995ean. Bertan adosturikoen artean dago enpresak jarritako aerosorgailu bakoitzeko ordaindu beharreko dirua: 200.000 pezeta (1.202,02 euro). 22 aerosorgailu ziren jartzekoak. Iazko ekitaldian Udalak 15 aerosorgailuri zegokien dirutza jaso zuen, 1.202,02 euro bakoitzeko, esan bezala.

Hitzarmenak dioenez, bost urteko epea dago aerosorgailuak martxan jartzeko. Hala gertatu ezean, hitzarmenaren edukia berriro aztertzeo aukera aipatzen zen. Ez ddugu hitzarmen aldaketaren berririk jaso.

Halaber, hitzarmenak ordaindu beharreko dirutza energia elektrikoaren prezioaren eguneratzearen arabera urtero aztertuko zela zioen. Kanona, ordea, ez da berri hitzarmena sinatu zenetik, alegia, 1995etik.

*Beraz, hitzarmenak aurreikusitakoa betetzeko gomendioa ematen dugu. Halaber, aerosorgailuak jartzeko utziriko lurrengatiko dirusarreraren zenbatekoa urtero egiaztatu behar da.*

**Errentan utzitako udal eraikinei dagokienez, kontratua egin behar da eta bertan prezioa ere finkatu egin behar da.**

#### V.1.11. Finantza pasiboak

Finantza pasiboen ondorioz bildurikoak Udalak 2004an harturiko zorra jasotzen du: 390.000 euro, 180.000 euro aurreikusi baziren ere. Finantza-pasiboen dirusarrerak %14 izan ziren, Udalaren 2004ko gastu guztiak kontuan hartuz.

Dirusarrera hauek ongi baimenduta, kontabilitzatuta eta justifikatuta daude.

#### V.2. UDALAREN EGOERA BALANTZEA

Honakoa da Leitzako Udalaren egoera balantzea, 2004ko abenduaren 31n:

AKTIBOA	Zenbatekoa	PASIBOA	Zenbatekoa
Ibilgetua	14.218.162,77	Ondasun eta erreserbak	7.554.813,70
Zordunak	445.731,68	Kapital dirulaguntzak	3.341.694,70
Finantza emaitzak	646.648,65	Epe luzerako zorrak	3.316.032,03
		Epe laburrerako zorrak	625.383,78
		Ekitaldiko emaitza	472.618,89
Aktiboa guztira	15.310.543,1	Pasiboa guztira	15.310.543,1

Balantzearen kontuetan ez daude bildurik Udalaren aldeko abalak, ezta Udalak berak emaniko abalak ere.

Ondoren, aztertutako balantze-atalei dagozkien ondorio eta gomendioak biltzen ditugu.

#### V.2.1. Ibilgetua

Udalaren ibilgetua honako ondasun hauek osatzen dute:

Balantzea	
Ibilgetu materiala	8.860.742,58
Ibilgetu ez materiala	156.762,99
Inbertsioak, azpiegitura eta erabilpen orokorreko ondasunak	1.508.408,05
Komunaletako inbertsioak	3.690.686,52
Finantza-ibilgetua	1.562,63
Guztira	14.218.162,77

Udalak ondarea osaten duten ondasun zerrenda egina du.

Balantzearen arlo honi dagokionez, honakoak dira gure gomendioak:

- *Osoko bilkurak urtero onartu behar du ondasun zerrenda*

- *Balantzeak eta ondasun zerrendak jasotako ibilgetu material eta erabilpen orokorreko ondasunetan diferentziak daude dirutan eta, beraz, konpondu egin behar dira.*

### V.2.2. Zordunak

Balantzeko zordunetan 445.731,68 euro daude 2004ko abenduaren 31n. Dirutza hori ondorengoei dagokie:

	Zenbatekoa
Gastuen itzulerengatiko zordunak	1.536,36
Aurrekontu arruntaren zordunak	298.576,23
Itxitako aurrekonturaren zordunak	109.772,41
Beste erakundek aurkezturiko errekurtsoengatiko zordunak	5.002,21
Aurrekontuz kanpoko erakunde publikoak	27.828,84
Aurrekontuz kanpoko beste zordunak	3.015,63
2004-1-31ko zordunak, guztira	445.731,68

Aurrekontuan onarturiko eskubideei dagozkien zordunak 2004an kobratzeke dauden saldoei dagozkie. Beste horrenbeste esan daiteke 1994-2003 epeko zordunak. Denak kontzeptu ekonomiko zein izenez identifikaturik daude.

Beste erakundek aurkezturiko errekurtsoengatiko zordunak Udalak kudeatzen duen saneamendu-kanonari dagozkio, kanona NILSA enpresari ordaindu behar zaio-eta.

Zordun diren erakunde publikoen saldoa (27.828,84 euro) Nafarroako Ogasun Publikoari dagokio. Izan ere, aipaturiko erakundeak dirutza hori itzuli behar baitu 2004ko abenduaren 31n, urtean eginiko BEZ zergaren aitortpenak direla eta.

### V.2.3. Finantza emaitzak

Balantzeko finantza-kontuen multzoak 646.648,65 euroko saldo zorduna du 2004ko abenduaren 31n, eta ondokoek osatzen dute:

	Zenbatekoa
Finantza inbertsioa iragankorrak	1.000,00
Betetzeko dauden kontusailak	28.475,84
Kutxa	615,59
Bankuak	616.557,22
Finantza kontu guztiak 2004-12-31n	646.648,65

2004ko abenduaren 31n bankuetan zeuden saldoen artean bada bat -616.557,22 eurokoa-Udalak harturiko kredituari dagokiona.

Udalak bi kontu korrante ditu aurreko alkatearen izenean eta mugimendurik eta interesik ez duten beste batzuk ditu.

Finantza kontuez, hona hemen gure gomendioak:

- *Finantza-kontuetan "Aplikatzeko dauden diru sailak" kontzeptupean dagoen 28.475,84 euroko saldoa aztertu eta, behar izanez gero, bertan behera utzi.*

- *Kontuek diruzaintzan adierazten duten saldoak eta benetakoak bat egin dezaten banku-berdinkatzeak egin behar dira.*

- *Batere mugimendurik ez duten kontu korronteak, interesik gabeak eta Udalekoak ez diren izenean daudenak ez dira mantendu behar.*

### V.2.4. Hartzekodunak

Egoera-balantzearen pasiboak honako zor hauek jasotzen ditu 2004ko abenduaren 31n:

	Zenbatekoa
Epe luzerako zorrak	3.316.032,03
Epe laburrerako zorrak	625.383,78

**Epe luzerako zorrak** Udalak 2004ko abenduaren 31n zuen zor biziari dagozkio, zorraren egoerak islatzen duen bezala. Eta dagozkion polizetan daude justifikaturik.

**Epe laburrerako zorraren** %80 honako ekitaldiotako aurrekontu-hartzekodunei dagokie:

2004ko aurrekontuko hartzekodunak	495.104,34
2003ko itxitako aurrekontuko hartzekodunak	7.689,17

Hartzekodunak identifikaturik daude, bai kontzeptu ekonomikoaz eta baita izenez ere, eta ekitaldiko aurrekontu kitapenean ordaintzeke zeuden betebeharrei dagozkie.

Epe laburrerako zorretan Udalak jasotako finantzak ere sartzen dira.

### V.3. UDALAREN IRABAZI ETA GALEREN KONTUA

Udalaren 2004ko irabazi eta galeren kontua honakoa da:

	Zenbatekoa
Ekitaldiko emaitza	487.213,85
Itxitako aurrekontuetako betebeharrak eta eskubideen aldaketa	-14.594,92
2004ko emaitza	472.618,89

Balantze-pasiboaren fondoaren taldea emaitza ekonomikoaren isla da.

Ekitaldiko emaitzen kontuak honakoa jasotzen du: aurrekontuaren ohiko dirusarrerak (1-5 kapituluak), 7 kapituluaren erregistraturik dauden hirigintzako dirusarrerak eta ohikoak diren aurrekontu gastuak (1-4 kapituluak). Dirusarrera eta gastuak aurrekontu kitapenari buruzko IV.1 atalak aztertzen ditu.

Itxitako aurrekontuetako betebeharrak eta eskubideen aldaketaren 2004ko emaitza honakoari dagokio:

2004 baino lehenagotik kobratzeke zeuden eskubideen ezeztapena	-14.896,81
2004 baino lehenagotik ordaintzeko zeuden betebeharraren ezeztapena	301,89

Zirkulazio zergan 1999-2003 epeari zegokion 6.185,65 euroko eskubideak ezeztatu dira. Ezeztapenak agente betearazleak auzaturiko kitapenetan oinarritu dira, Udalak onartu egin ditu eta behar bezala kontabilizatu dira.

### V.4. HIRIGINTZA

Leitzako hirigintza udal plana Lurralde antolaketarako Bartzordeak onartu zuen 200ko azaroan, Hirigintza eta Lurralde antolaketari buruzko 10/1994 foru legeak agindurikoaren arabera.

2004ko hirigintza jarduerari dagokionez, honakoa aztertu dugu:

- Hiru hirigintzako aldaketa lur kalifikazioa aldatzeko eta AR4 banaketa eremuari dagokiona, azken hau Udalak bultzatuta. Tramitazioa zein onarpena Hirigintza eta Lurralde Antolaketari buruzko 35/2000 Foru Legeak araturiko prozeduraren arabera egin dira.

- UE 33 betearazpen atalaren garapena. Borondatezko lur-sailkatzearen bidez egin zen, aipaturiko atala osatzen zuten lur-sailen jabeek bultzatuta. Horretarako Lur-sailkatze batzordea

osatu zuten, 2003ko apirilko agiriak frogatzen duen bezala.

Lur sailkatzearen hasierako onespina osoko bilkurak onartu zuen 2003ko maiatzean eta NAOk 2003ko abuztuaren 27an argitaratu zuen. Proiektua behin betikotzat jotzeko 20 egun pasatu behar dira hasierako onespina argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, inork ez baitzuen alegaziorik aurkeztu. Behin betiko onespina, ordea, 2004ko martxoaren 5era arte ez zen NAOk argitaratu.

UE 33ren garapenari lotutako hirigintza proiektua 2004ko apirilaren 30ko osoko bilkurak onartu zuen behin betiko. Urbanizazioa 2004an amaitu zen.

Udal arkitektoak 2004ko abenduaren 21ko txostenean dioenez, urbanizazio lanak jaso aurretik atzemandako arazo batzuk konpondu behar ziren, eta UE 33 izenekoan eginiko eraikin bakoitzeko (lau eraikin ziren) 600 euroko abala sinatzeko gomendioa ematen du.

Udalak UE 33ko obregatikoko 1.000 euroko abala jaso zuen 2004ko abenduaren 28an. Abalaren bidez udal arkitektoak aipaturiko arazoak konponduko zirela ziurtatu nahi zuten, bermetzat hartu baitzen.

Udalak urbanizazio lanak 2004ko abenduaren 29an jaso zituen. Harrera aktak ez ditu aipatzen udal arkitektoak salaturiko arazoak.

- **Hirigintza lizentziak:** Lau hirigintza lizentzia aztertu ditugu. Hirigintza legediaren arabera lizentzia behar duten egintzak direla ondorioztatu dugu. Lizentzia ematea dagokion organoak egin du, Hirigintza eta Lurralde Antolaketari buruzko 35/2002 foru legeak ezarritako prozeduraren arabera. Salbuespen bakarra da ez dagoela lizentzia eman aurretik idazkariak egin beharreko txostena, alegia, lizentziak hirigintza legedia betetzen duela adieraziz aurkeztu beharreko txostena. 2005ean hasi zen egiten aipaturiko txostena.

- **Hirigintza hitzarmenak:** Udalak hirigintza hitzarmen bat sinatu zuen 2003an. Enpresa batekin sinaturiko hitzarmenak enpresak Udalarari eginiko hirigintza-lagapenak arautzen ditu.

- **Udal lur ondareari dagokionez,** ez da lur-harrerak edo diru-sarrerak biltzeko erregistrorik egin. Ondasun zerrendan ere ez da haren ezaugarri bereizi edo lotua adierazten.

Alde horretatik, eta udal lur ondarea gainerako udal ondasunetatik bereizturik dagoela kontuan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

• *Udal lur ondarearen kudeaketa bereiztea gainerako udal ondasunen kudeaketatik, eta ondasun zerrendak ezaugarri bereizi eta lotua adieraztea.*

• *Udal lur ondarearen erregistroa sortzea. Bertan lur eta diru harrerak eta sarrerak zehaztu behar dira, Hirigintzaren 35/2002 Foru Legeak ezarritakoaren arabera.*

#### V.5. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN AZTERKETA

Leitzako Udalaren 2004ko egoera ekonomiko eta finantzarioa aztertzeko eta aurreko urtekoarekin alderatzeko honako datu hauek erabili ditugu:

DATUAK	2004	2003
Aurrekontu emaitza doituak	415.956,39	-155.649,79
Biztanle bakoitzeko dirusarrerak	964	950
Biztanle bakoitzeko zergen bidezko dirusarrerak	411	293
Dirulaguntzekiko menpekotasuna	40%	49%
Biztanle bakoitzeko gastuak	854	1.001
Langileria-indizea	23%	18%
Inbertsio-indizea	22%	34%
Biztanle bakoitzeko gastu arrunta	604	567
Biztanle bakoitzeko finantza-zama	94	133
Aurrezki gordina	441.315,76	283.680,72
Finantza zama	272.754,89	384.857,91
Aurrezki garbia	168.560,87	-101.177,19
Zorpetze-maila	13%	21%
Zorpetze-muga	21%	16%
Zorpetza-ahalmena	8%	-6%
<b>Diruzaintzako gerakina</b>	<b>442.560,39</b>	<b>8.201,16</b>

(1) Kalkuluak egiteko 2.901 biztanleko kopurua erabili dugu 2004. urterako; 2003rako, berriz, 2.898 biztanleko kopurua, ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean.

Aurreko urteko datuekin alderatuz, egoera ekonomikoak hobera egin zuen 2004ko ekitaldian. Izan ere, aurrekontu emaitza doituak hobea da, eta baita aurrezki gordin eta garbia, eta diruzaintzako gerakina. Bestalde, zorpetze-maila jeitsi egin da eta zorpetze-ahalmena handiagoa zen 2003an baino.

2004ko aurrekontu emaitza (318.727,54 euro) horrela banatzen da:

Aurrezki gordina	168.560,87
Inbertsioetarako gehiegizko finantziazioa	150.166,67

Aurrezki gordina (Udalak funtzionamendu gastuak ordaindu ondoren lorturiko baliabideak) 441.315,76 eurokoa zen 2004ko abenduaren 31an, aurreko urtean baino %56 handiagoa. Igoera ulertertzeko kontuan hartu behar da ohiko dirusarreraren eta ohiko gastuen arteko aldea handiagoa izan zela iaz orain dela bi urte baino.

Aipatzekoa da zergen bidezko dirusarrerak %40 igo zirela aurreko urteko datuekin alderatuz, batez ere eraikuntza eta instalazio zerga nabarmen handitu baitzen 2003ko datuekin alderatuz.

2004ko aurrezki gordina (aurrezki garbia ken finantza-zama) urteko ohiko dirusarrerren %8 da, aurreko urtean baino %14 handiagoa. Bi urteetako datuen aldaketa finantza zamaren jeitsierak azaltzen du, kolektorea martxan jartzeko eskaturiko mailegua 2003an kitatu baitzen. 2004ko ekitaldian zorrak sorturiko interes eta amortizazio gastueta-rako ohiko dirusarrerren %13 erabili da.

Udalaren zorpetze maila zorpetze mugatik baino 8 puntu txikiagoa da. Beraz, 2004ko abenduaren 31n Udalak bazuen zorra hartzeko ahal-

mena. Aurreko urtean, aldiz, zorra hartzeko ahalmenik ez zeukan.

Urtean eginiko inbertsioak (542.131,14 euro) aurreikusitakoen %39 dira. Kapital eta kreditu transferentzien bidez finantzatu dira eta horri loturiko 150.166,67 euroko kapital-soberakin sortu da.

Diruzaintzako gerakina 442.560,39 eurokoa zen 2004ko abenduaren 31n. Udalak etorkizuneko gastuen finantziarako bilduriko dirua da. Ondorengo datuetan horren xehetasunak eta aurreko urteko gerakinarekin eginiko konparazioa ikus daitezke:

Kontzeptua	2004	2003
Kobratzeko dauden eskubideak	445.731,68	622.288,89
- Kobratzeko zailak diren eskubideak	-102.623,35	-125.182,39
- Ordaintzeko dauden eskubideak	-620.381,57	-619.534,27
+ Diruzaintzako fondo likidoak	617.172,81	130.628,93
+ Bilduriko finantziario desbideraketa negatiboak	102.660,82	
Diruzaintzako gerakina, guztira	442.560,39	8.201,16
Loturiko finantziario duten gastuengatiko diruzaintzako gerakina		13.941,40
Loturiko baliabideengatiko diruzaintzako gerakina		
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	442.560,39	-5.740,24

Diruzaintzako gerakina 8.201,16 eurotik 442.560,30 eurora pasatu da azken bi urteotan. Horren arrazoia da 2004an harturiko 390.000 euroko mailegua, diruzaintzako fondoan zati dena.

Bilduriko desbideraketa negatiboek bi arrazoi dituzte: Patxi Arrazola auzoko inbertsioak eta espaloien aldaketa-lanak, azken hauek 2004an egin baziren ere, zegokien dirulaguntza kobratu gabe baitzegoen.

2004ko ekitaldiko diruzaintzako gerakin osoa "gastu orokorretarako gerakintzat" hartzen bada ere, ukitutako baliabideok kendu beharko lirateke:

- Sare eta pabimentazio lanetarako 2004an harturiko 390.000 euroko mailegua. Maileguak lanetarako emana zegoen dirulaguntza kobratu arteko gastuei aurre egitea zuen helburu.

- Hirigintza legediaren arabera hirigintza probetxamenduei loturik dauden dirusarrerak.

## VI. UDAL ENPRESA PUBLIKOA

Leitzako udalak kapital osoa udalarena zuen "Hirigintza kudeatzeko Leitzo lantzen Elkartea S.L." izeneko enpresa sortu zuen 2001ean. Enpresaren helburuak honakoak dira: hirigintza azterketak egitea, hirigintza bultzatzea, lursailen urbanizazio eta desjabetzeak sorturiko obra eta zerbitzuak kudeatzea eta ustiatzea, alokatzeko eta saltzeko etxebizitza eta industria lekuak eraiki eta bultzatzea.

Enpresak 2004an eginiko lan nagusiak hauek izan dira: lursail bat saldu du eta industrialdeko urbanizazio lanak bukatu ditu. 2004ko ekitaldiaren amaieran enpresak sei lursail zituen salgai 614.902,76 euroko balioa zutenak.

2003an emaniko 1.200.000 euroko epe motzerako bi mailegu ezeztatu ziren eta beste bi hartu ziren –urte betean ordaintzeko- 460.000 eta

470.000 eurokoak. Maileguez sorturiko finantza gastuak 25.650,89 eurokoak izan ziren 2004ko ekitaldian.

Udalak enpresak harturiko bi maileguetarako abala aurkeztu zuen. Udal osoko bilkurak oneritzia eman zuen aipaturiko abalak aurkezteko.

Enpresak 110.000 euroko dirutza utzi zion Udalari diruzaintzako beharrei aurre egiteko, eta dirutza hori urtea amaitu aurretik itzuli dio enpresari.

Ohiko jardunen ondoriozko emaitzak 30.737,73 euroko galera ekarri dio enpresari. 2003ko ekitaldian galera 20.493,16 eurokoa izan zen.

2003 eta 2004ko ekitaldietako galerak epe motzerako maileguez sorturiko finantza gastuen ondorio dira. Enpresaren kapitala baino handiagoak dira (3.006 eurokoa da kapitala) eta bi ekitaldietan ondare negatiboa sortu dute.

Bi urteotako kontuak kontuan hartuz, enpresaren egoera ekonomiko eta finantzarioa aztertu ditugu, adierazle batzuk erabiliz.

Epe motzean enpresak ez du likideziazirik eta ez du epe motzean dituen beharrei aurre egiteko ahalmenik.

Epe luzerako egoerari dagokionez, epe motzerako maileguez menpekotasun handia dauka, eta ez du finantza autonomiarik, galerek fondo negatiboak sortu baitituzte.

Enpresak maniobra-fondo negatiboa dauka (18.122,58 eta 48.860,29 euro 2003an eta 2004an, hurrenez hurren). Honek esan nahi du aktibo zirkulatzailerako finantzatzeko baliabide finkorik ez duela (izakinak, zordunak eta diruzaintza).

Ekonomia egoerari dagokionez, errentagarritasun finantzarioa (kapitalen arteko etekin gordina) eta errentagarritasun ekonomiko (enpresaren etekina haren aktibo osoa kontuan hartuz) negatiboak dira. Enpresaren margina gordina, alegia, salmenta gordinen emaitza, negatiboa izan zen bi ekitaldietan: 2003 eta 2004an.

*Beraz, udal enpresa publikoaren egoera ekonomiko eta finantzarioa kontuan hartuz, Udalak hausnarketa egin behar luke enpresaren etorkizunaz eta enpresaren zerbitzua emateko moduz.*

*Halaber, Udalak enpresa publikoaren kudeaketa ekonomikoaren gaineko kontrola egin behar luke, finantza-kontrola hain zuzen ere.*

M<sup>a</sup>. Asunción Olaechea Estanga auditore andereak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria : Luis Muñoz Garde



**1. Eranskina: Leitzako udalaren finantzen egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n**

1.1. Eranskina. Udalaren gastuen eta dirusareren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen araberakoa, 2004ko abenduaren 31n

DIRUSARRERAK	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorituriko dirusarrerak	Betetzearen %	Aitorituriko dirusarrerak guztira	Kobratutakoa
Zuzeneko zergak	478.150,00		478.150,00	541.009,08	113	19	519.115,82
Zeharkako zergak	300.000,00		300.000,00	435.293,99	145	16	370.934,15
Tasak, prezio publikoak eta beste dirusarrera batzuk	224.555,01	2.386,28	226.941,29	248.324,28	109	9	228.368,93
Transferentzia arruntak	829.312,84	9.550,36	838.863,20	820.858,91	98	29	722.514,13
Ondare dirusarrerak eta herri ondasunen aprobetxamendukoak	227.190,36		227.190,36	58.422,11	26	2	54.136,99
Inbertsio errealeen besterentzea	221.000,00		221.000,00	0,00			
Kapital transferentziak eta bestelako kapital dirusarrerak	834.248,68	73.879,18	908.127,86	302.297,81	34	11	212.559,93
Aktibo finantzarioak	0,00	8.201,16	8.201,16				
Pasibo finantzarioak	180.000,00		180.000,00	390.000,00	217	14	390.000,00
Dirusarrerak guztira	3.294.456,89	94.016,98	3.388.473,87	2.796.206,18	83	100	2.497.629,95

GASTUAK	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorituriko eskubideak	Betetzearen %	Gastu guztien betebeharren %	Ordaintutakoa
Langileria gastuak	556.111,00	3.656,85	559.767,85	558.457,87	100	22	547.661,34
Ondasun arruntten eta zerbitzuen erosketa	913.023,76	-4.266,32	908.757,44	908.582,44	100	37	770.766,71
Finantza gastuak	135.070,00	0,00	135.070,00	90.943,22	67	4	90.943,22
Transferentzia arruntak	197.607,00	6.032,84	203.639,84	195.552,30	96	8	188.031,21
Inbertsio errealak	1.310.783,30	88.593,61	1.399.376,91	542.131,14	39	22	203.160,15
Kapital tranferentziak	0,00		0,00				
Aktibo finantzarioak	0,00		0,00				
Pasibo finantzarioak	181.861,83	0,00	181.861,83	181.811,67	100	7	181.811,67
Gastuak guztira	3.294.456,89	94.016,98	3.388.473,87	2.477.478,64	73	100	1.982.374,30

## 1.2. Eranskina. Udalaren egoera balantzea 2004ko abenduaren 31n

AKTIBOA			
Izena		Zenbatekoa	
	IBILGETUA	14.218.162,77	
	Ibilgetu materialak	8.860.742,58	
Lursailak eta ondasun naturalak			210.693,70
Eraikinak			5.228.143,84
Instalazio teknikoak, makineria eta tresneria			226.441,23
Garraiobideak			307.081,84
Altzariak			85.052,35
Informazio prozesuetarako hornidura			22.328,22
Instalazio konplexu bereziak			2.516.665,81
Ondare historiko-artistikoa			860,64
Bestelako ibilgetu materiala			263.474,95
	Ibilgetu ez materiala	156.762,99	
Ikerketak eta proiektuak			6.394,17
Bestelako ibilgetu ez materiala			150.368,82
Azpiegituren inbertsioak, erabilpen orokorreko ondasunak		1.508.408,05	
Lursailak eta ondasun naturalak			186.837,40
Azpiegit. eta erabilpen orokorreko ondasunak			1.321.570,65
	Inbertsioak komunaletan	3.690.686,52	
Lursail eta ondasun komunalak			3.288.473,53
Azpiegiturek eta ondasun komunalak			402.212,99
	Ibilgetu finantzarioa	1.562,63	
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak			1.562,63
	Zordunak	445.731,68	
Gastuen itzultzearengatiko zordunak			1.536,36
Onarturiko eskubideengatiko zordunak			408.348,64
Beste ente batzuen konturako baliabideak			5.002,21
administratzeagatiko zordunak			
Aurrekontukoak ez diren erakunde publikoak			27.828,84
Aurrekontukoak ez diren beste zordunak			3.015,63
	Finantza kontuak	646.648,65	
Aldi baterako finantza inbertsioak			1.000,00
Aplikatzeko dauden diru sailak			28.475,84
Kutxa			615,59
Banku eta kreditu erakundeak			616.557,22
<b>Aktiboa, guztira</b>			<b>15.310.543,10</b>

## PASIBOA

Izena	Importes	
Ondare eta erreserbak	7.554.813,70	
Ondarea		4.265.768,65
Uzte ondarea		442.686,08
(-) Utzitako ondarea		-298.136,62
(-) Guztiak erabiltzeko utzitako ondarea		-100.114,23
Aplikatzeko dauden emaitzak (positiboak)		3.244.609,82
Kapital dirulaguntzak	3.341.694,70	
Jasotako kapital dirulaguntzak		3.341.694,70
Epe luzeko zorrak	3.316.032,03	
Maileguak		3.316.032,03
Epe motzeko zorrak	625.383,78	
Onarturiko betebeharrengatik hartzekodunak		502.793,51
Dirusarreraren itzultzeengatik hartzekodunak		565,93
Erakunde publikoek kobratzeko dituzten eskundeak		5.002,21
Erakunde publikoek kitatzeko dituzten dirusarrerak		33.274,02
Erakunde publikoak		14.273,99
Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodunak		69.474,12
Emaitzak	472.618,89	
Ekitaldiko emaitzak (etekinak)		472.618,89
Pasiboa, guztira		15.310.543,10

## 1.3. Eranskina. Udalaren galera eta irabazien kontua, 2004ko abenduaren 31n

## ZORRA

	Deskripzioa	2004ko zenbatekoa
61	Langileria gastuak	559.629,17
62	Finantza gastuak	90.943,22
64	Lan, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	907.382,14
67	Transferentzia arruntak	195.552,30
800	Ekitaldiko emaitza arrunta	487.213,85
	Guztira	2.240.720,68

## HARTZEKOA

	Deskripzioa	2004ko zenbatekoa
70	Salmentak	188.967,14
71	Jabeen eta enpresaren errenta	74.506,57
72	ekoizpen eta inportazioari loturiko zergak	796.935,19
73	Errenta eta ondarearen gaineko zerga arruntak	178.635,95
76	Transferentzia arruntak	820.858,91
77	Kapitalaren gaineko zergak	12.695,72
78	Bestelako dirusarrerak	168.121,20
	Guztira	2.240.720,68

**2. Eranskina: Udal enpresaren egoera-orriak, 2004ko abenduaren 31n**

## 2.1. Eranskina. Egoera balantzea 2004ko abenduaren 31n

	2004	2003
<b>AKTIBOA</b>		
Izakinak	614.902,76	774.354,94
Zordunak	27.251,92	89.892,41
Diruzaintza	155,45	109,20
Aktibo zirkulatuak	642.310,13	864.356,55
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>642.310,13</b>	<b>864.356,55</b>
<b>PASIBOA</b>		
Kapitala	3.006,00	3.006,00
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-21.128,56	-635,42
Ekitaldiko emaitzak	-30.737,73	-20.493,16
Fondo propioak	-48.860,29	-18.122,58
Epe motzerako hartzekodunak	691.170,42	882.479,11
<b>Epe motzerako hartzekodunak</b>	<b>691.170,42</b>	<b>882.479,11</b>
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>642.310,13</b>	<b>864.356,53</b>

## 2.2. Eranskina. Irabazi eta galeren kontua 2004ko abenduaren 31n

	2004	2003
Salmenta gordinak, zerbitzuaren eta ustiapenaren ondoriozko beste dirusarrerak	245.920,00	1.107.250,72
Izakien aldaketa	-159.452,18	-298.645,06
Ustiapenerako dirulaguntzak		115.268,51
Produktzioaren balioa	86.467,82	923.874,17
Erosketa gordinak	76.893,26	860.979,52
Ustiapen eta kanpoko gastuak	13.566,22	39.969,06
Langileria gastuak	1.095,18	7.079,50
<b>Ustiapenaren emaitza gordina</b>	<b>-5.086,84</b>	<b>15.846,09</b>
<b>Dirusarrera finantzarioak</b>		
Gastu finantzarioak	25.650,89	36.339,25
<b>Ohiko jardunaren emaitza</b>	<b>-30.737,73</b>	<b>-20.493,16</b>
<b>Galerak</b>	<b>-30.737,73</b>	<b>-20.493,16</b>